

TOLOSAKO UDALAREN ADIERAZPENA UKRAINAKO GERRARI BURUZ

ZIOA

Errusiako Gobernuak Ukraina erasotzeko eta inbaditzeko hartutako erabakiaren ondorioz, joan den hilabetetik milaka pertsona hil dira, ehundaka zauritu, eta millioika alde egiten ari dira, bonbetatik ihesi.

Errusiako Gobernuaren oldarraldia justifikaziorik gabeko eraso da, inoiz ez bezalako larritasuna duena, eta nazioarteko zuzenbidearen urraketa nabarmena, segurtasun globala eta egonkortasuna arriskuan jartzen dituen.

Horregatik guztiagatik, Tolosako Udalak honako hau onartu du:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

1. Tolosako Udalak irmotasun osoz arbuiatzen ditu Errusiako Federazioak Ukrainan egindako ekintza militarrik, nazioarteko zuzenbidearen urraketa larria dakartenak. Justifikaziorik gabeko eraso da, eta Europako segurtasuna eta egonkortasuna ahultzen du.
2. Tolosako Udalak borrokak berehala gelditzeko eskatzen du, eta armada errusiarra Ukrainatik erabat erretiratzeko. Ukrainaren subiranotasuna eta lurralde-osotasuna erabat babesten eta errespetatzen ditu eta deia egiten dio Minskeko akordioetara itzultzeko.
3. Tolosako Udalak Ukrainari eta hango herriari erabateko elkartasuna eta estimua adierazten die. Bizien galera deitoratzen du, eta atsekabe sakona agertzen du, biktimengatik eta herritarren alferrikako sufrimenduarengatik. Sentimendu hori Tolosan bizi den komunitate ukrainarrari ere helarazi nahi dio.
4. Tolosako Udalak Europar Batasunari eskatzen dio beharrezko laguntza finantziarioa eta humanitarioa eskaintzeko Ukrainari eta Ukrainako herriari, nazioarteko komunitate osoarekin koordinatuta. Larrialdiko erantzun humanitarioan ahaleginak areagotzeko eskatzen du. Errusiari gogorazten dio nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzeko betebeharra.
5. Europar Batasunari, Estatu espainiarrari eta Eusko Jauarlaritzari eskatzen die, ahalik eta azkarren antolatzeko, eraso militar hori eragiten ari den errefuxiatuak ahalik eta baldintzarik onenetan hartzeko. Eta agintari eskudunen esku jartzen Tolosako Udalak dituen baliabideak behar izanez gero Ukrainatik iristen diren errefuxiatu horiei harrera emateko.
6. Tolosako Udalak irmo eskatzen dio Errusiako Federazioari, nazioarteko legedia errespetatzeko, armak baztertzeko eta bide diplomatikoetara itzultzeko.
7. Tolosako Udalak Europar Batasunari eskatzen dio ahalegin handiagoa egin dezala kudeaketa diplomatikoen bidez deseskalatzea bultzatzeko eta bakeari eusteko.
8. Tolosako Udalak Larrialdi Humanitariorako dirulaguntza bat onartzeko konpromisoa hartzen du.

Tolosan, 2022ko martxoaren 25ean



Ander Figuerido Zubiria